

Hannah Arendt-en *Gebürtlichkeit* ‘jaiokortasuna’: Historiaren norabideari buruzko galderari aurre egiteko kategoria

Elena Martinez Rubio
Filosofian Doktorea

Ondoko artikulua honetan Hannah Arendt-en giza jaiokortasunaren kontzeptua aztertzen da, Historiaren pentsamolde eboluzionista hautsi eta askatasun politikoa babesten duen kategoriatzat harturik. Jaiokortasunak –hilkortasunak ez bezala– hasiera berriei ekiteko giza ahalmenarekin du lotura zuzena ekintza bera eta gertaera partikularren esanahia diskurtsoaren ardatzean kokatzen direla, beti ere norabide orokor edo lege historikoei buruzko galderari uko eginez. Honela, ustegabeko abiapuntu eta hasiera infinitudun baina amaierarik gabeko kontakizun-multzo bihurtu zaigu Historia.

Nativity is Hannah Arendt's term for the notion of human beginning, directly linked to History and the question of freedom. Nativity, as a philosophical category, relates to one's own potentiality for the new and unexpected standing in contrast to the tradition's preoccupation with death. In the same way, political action, the essence of which is beginning, becomes the very source of man's freedom. Not general laws of movement but the meaning of particular events and deeds is the subject matter of History. History is thus a story which has many beginnings and no end.

Gaiari helduz

Jaiokortasunaren kontzeptuak berebiziko garrantzia du Hannah Arendten Historiari buruzko jarrera ezagutu orduko, testuinguru honetan dagokion lekua gutxi aztertu den arren. Alemanierazko *Gebürtlichkeit* Arendtek berak sortutako terminoa da, San Agustinen hasieraren gaineko pentsamenduan oinarrituz gizakien jaiotzeko gaitasuna adierazteko. Jaiokortasuna beraz, hilkortasunari kontrajartzen zaion kategoria dugu.

Zein da –galdetzen du Arendtek– hilkortasunaren kategoriak jaiokortasunaren aldean pentsalarien artean duen lehentasunerako arrazoia? Zergatik onartu behar dugu gizon gutxi batzuek heriotzaren aurrean dituzten esperientzia eta pentsamenduak balio handi berezikoak direna? Amaiera edo heriotzaren esperientzia existentzialak bilakaera eta gainbeheraren kontzeptuetara garamatza Historiaren Filosofiaren arloan. Baina mundu hau benetan aspergarria litzateke bertan filosofo zaharren heriotzari buruzko jakinduria nagusituko balitz.

Jaiotzaren esperientziak, ordea, eboluzioaren pentsamoldea hausten du, hain zuzen ere, gizakia ongien definitzen duena hauxe delako: bere bat-bateko eta ustegabeko mundura-

tze aurrirustezen eta berritzailea, askatasunaren adierazgarri eta bermatzaile dena.

Arlo politikoaren duintasunaren berreskuratzea filosofiaren eskutik

1. *Filosofia, Historia eta Politika: disziplinen arteko mugen ezabatzea Hannah Arendten pentsakeran.*

Hannah Arendten pentsakeraren berezitasuna ondoko honetan datza: aztertu zituen sistema filosofiko guztietako osagaiak bere erara elkartu zituela libre aukeratuz eta sistema itxi edo borobil batean osatzea inoiz helburu ez zuelarik. Pentsatzearen iharduera bera baitzuen helburu eta aurriritzirik gabe ekin zion honi. Izan ere, nahiz eta Arendten pentsakeran korronte existentzialista zein fenomenologiako ezaugarriak topatzen ditugun, hauek eragin desberdinekin batera azaltzen zaizkigu, hala nola, Aristotele, San Agustín, Kant, Tocqueville etab.en lanetan. Mende honetako pentsalarietatik berriz, besteak beste, Benjamin¹, Jaspers², Heideggeren³ ... bere interpretazioak ditugu ardatz. Baina Arendten ideiak independente samar eta sailkatzen zailak direnez gero, ezker marxista nahiz kontserbadore filoamerikarren aldetik kontraesantetan aritzea leporatu ohi zaio beti; azkenontzat Mendebaldeko ereduko demokraziarekiko kritikoegi izateagatik,

1. Arendtek Marseillan ikusi zuen Benjamin azkeneko aldiz Bigarren Mundu-Gerra hasi eta gero, eta honek Historiaren kontzeptuari buruzko bere idazkiak eman zizkion New Yorkera eraman zitzan ihes egitea lortzen bazuen. Geroztik Arendtek heredentzia berezia eta eraginkortzat jo zituen Benjaminen aurrerapenaren ideologiaren aurkako tesiak.

2. Hannah Arendtek San Agustinen maitasun kontzeptuari buruz idatzi zuen doktoretzako tesia Jaspers zuzendari zuelarik.

3. Arendten filosofian barrera abiatuz gero, irakasle eta garai batean lagunmin ere izan zuen Heideggeren pentsakeraren aztarnekin egiten dugu topo, nahiz eta geroago gogor kritikatu zituen Heideggeren filosofiaren erroak, honek nazien alde hartu zuen jarrerak bultzatuta. Ik. "Was ist Existenzphilosophie?" artikulua (Arendt 1948).

ezkertiarrentzat ostera, batik bat materialismo historikoaren legeak eta Historiaren aurrerapena errefusatzeagatik. Arendtek inoiz ez zion oniritzi kapitalismo ala sozialismoranzko eboluzioaren arteko alternatibari, beti ere bide berri eta ezustekoen alde agertuz. Bestalde, azken urteotako gertakizun politikoak direla eta, Arendten eragina indartu egin da irakurketa berri bati ekin zaion bitartean.

Bada, Historia, Filosofia eta Politika gai nagusien artean mugitu zen Arendt bere obra osoan zehar: hiruron arteko loturak ezin bazter litezke geure gaia aztertzean ondoren ikusiko dugunez.

2. Askatasunaren kontzeptua

Batetik gizakien funtsezko arrotasunaz munduan eta etxerik ezaz hitz egiten badigu ere, bestetik gizakia –beste gizakiekin batera– giza mundua edo *Mitwelt* delakoa osatzeko gai dela sinesten du Arendtek, mundu horretan elkarrekin burututako ekintza politikoak nagusi izanik. Gizaki anitzek eraikitzen duten mundu hori daitekeen giza etxe edo egoitza bakarra da gainera, *Heimat* edo *Heimstätte*. Eta gaitzestekoa da filosofoek oro har gizabanakoari buruz mintzatzeko duten joera, aniztasuna delako gizakiak munduan azaltzen zaizkigun figura.

Halaber, gizaki guztiak pentsatzeko gai dira, hau da, gogoeten bidez bere buruaz ohartzetik (*Bewusstsein*) kontzientziara (*Gewissen*) iristeko, pentsatze-ihardun hori bera ere politikoa izaki, eskema, arau, aurriritzi, dogma eta abar –judizioari galarazten dion guztia alegia– hausteko ahalmena den neurrian.

Baina zergatik banandu dira Sokraterengandik aurrera Filosofia eta Politika? Arendten hitzetan hauxe litzateke arrazoia Platonen Kobazuloaren Mitotik abiatuz:

Filosofoak kobazulora itzultzen direnean han bizi direnei kanpoan zer ikusi duten adierazteko asmoz, zentzugabekeriak esaten dituzte(...). Itzultzen den filosofoa arriskuan dago, *guztiona den munduan orientatzeko zentzua galdu duelako* (Arendt 1990: 95)⁴.

Hona hemen filosofoek –salbuespenak salbuespen– Historian zehar erakutsi duten tiranien aldeko jokabidearen zergatia, halaxe gertatzen baita Filosofiaren jatorritzat jotzen den harridura bizimodu iraunkor bihurtu nahi denean, harridura ezinbestez une iheskor bat besterik ez izanda.

Aipatu bi iharduerok –politikoki ekitea eta pentsatzea– askatasunean dituzte sustraiak: lehenengoan askatasun politikoa dugu, askatasun kontzeptua giza ekintzen bidez gauzatutako esperientzia kolektibotik eratortzen delako, inola ez bakardade edo giza baitako esperientzia isolatu batetik; pentsatzearen esperientziaren oinarria aldiz, Aintzinateko Penelope-ren iharduerarena da, pentsamenduak definizioz gauean egindakoa goizaldean desegiten ohi duelako, behinbetiko edo erabateko emaitzak baztertuz. Pentsatzearen funtsa mugagabea da eta giza mundua barneratzeko giltza du bere baitan bi solaskideren arteko elkarrizketa moduko batez egiten denez.

Gauzak honela, *vita activa–vita*

4. Etzana neuk ezarria da.

contemplativa-ren arteko banaketa bertan behera utzi beharra dagoela aldarrikatzen du Arendtek, bizimodu politikoari filosofiaren aldetik zor zaion duintasuna itzuliko bazaio. Era berean, gizakiek berezko dituzten *vita activa*-ko ihardun-motak hirutan sailkatzen ditu, horietan giza existentziako baldintzak adierazten direla: ekintza (*Handeln*), ekoizpena (*Produzieren*) eta lana (*Arbeiten*); eta egiazko askatasuna lehenengoari lotzen dio, ekintza politikoa fenomenoaren artean fenomeno gorentzat joz. Izpirituaren bizitzari buruz ordea, ondoko hiru ihardunok bereizten ditu: pentsamendua (*Denken*), nahimena (*Wollen*) eta judizioa (*Urteilen*). Hemen borondateari ematen dion garrantzia ere interesgarri dugu, ekintza politikoen iturburua den aldetik, filosofoei borondatearen izaera kontrolaezina eta batez ere askea onartzea latza egin ohi zaien arren. Honez gero nahimenaren izaera sortzailearekin batera, hasiera eta giza jaiokortasunaren kontzeptuetara hurbiltzen gara, giza ekintza politikoak eta askatasuna Arendten pentsakeraren erdigunean kokatu zaizkigularik.

Jaiokortasuna zer den

1. Hasiera oro printzipio dira

Ikus dezagun orain nola definitzen duen Arendtek jaiokortasuna: batetik, gizaki guztiak hasiera dira, aurretik dagoen mundu batean ezartzen den hasiera alegia; bestetik, mundu horren aldaketarako aukera edo parada ere gorpuzten dute. Zeren eta hasiera denbora barruko gertaera historikoa izan baino lehen, askatasun politikoaren baldintza existentziala baita.

Honen ondorioz, hasieraren posibilidadate beraren arazoa konpontzeko ez dugu inora jo beharrik eredu edo absolutu baten bila, bide berriak urratzea dagokiolako gizakiari, bera ere munduan berria izanez jaiotza dela medio.

Historiaren ikuspegitik esanda, jaiokortasuna gertaera berriak sortazteko gaitasuna besterik ez da. Iturri agorgaitza dugu hortaz. Jaiokortasunaren printzipioak hauxe esan nahi du, berezko edo espontaneoak, halabehar edo zortezkoa, bai eta aurretik zedarritu ezin dena. Eta mundua hilkor ere diren gizakiek egiten dutenez gero, hauek bezain hilkorra izateko arriskuari aurrea hartu behar zaio behin eta berriz mundu hori berrantolatuz, berreginez, eraldatuz, Arendten iritziz heldu berriei hitza emanez azken batez. Horrexegatik da beti kaltegarri alde batera edo besterako indoktrinazio ideologikoa, jatorritik gertuago daudenei galerazten dielako; edo bestela esanda, Historian ezer errepikatzen ez denez, bai heldu berrien ulermena fenomeno berrien aurrean eta bai ekintzekin erantzuteko ahalmena oztopatzen direlako. *Izan ere, hasiera jainkoizun baten antzerakoa da, giza munduan erroturik gauza guztiak enparatuz, Platonek idatzi zuenez*⁵.

Jaiotza beraz, gertaera biologiko hutsa baino kategoria dugu, ekintza ere oinarritzen den printzipioa hots, denboraren jarraikortasuna edo denborazko *continuum* baten ilusioa apurtzen duena. Gizakia bera jatorri bat izateak legitimatzen du jatorrietarako gaitasun honen ausazko izaera. Edo Arendtek sarritan aipatzen

5. Platon, *Legeak*, 775.

dituen San Agustinen hitzen arabera: *Initium ut esset, creatus est homo*. Gizakia, printzipioa eta hasiera da batera, bi terminook garaikide direlarik, hasierak ondorengo guztiari iradokitzen diolako. Hemen Antropologiaren arloan Mircea Eliádek tradiziozko gizarteetan aztertutako fundazioaren garrantzia datorkigu gogora⁶, bai eta Filosofia Politikoa arloan Arendtek egindako analisia askatasun-fundazioen legitimazioari buruz ere⁷. Grekoz nahiz latinez hitz bakar batek balio du bietarako: *arché* eta *principium* hurrenez hurren: hasierarekin batera printzipioa sortzen da, zorteak uste-gabeko hasierari ematen dion nahiera eta edonolako kutsua desagertuz.

2. Errealitatearen irakurketa

Baina zer gertatzen da historilariak iraganari begiratzen diotenean? Historilariak "déformation professionnelle" delakoarengatik, Historian edonon amaierak eta lege beharrezkoak antzemateko zaletasuna dute, bai eta orokortasunera jotzeko ere, errealitateari era kontenplatiboan so eginez eta, giza ekimenaz ahazturik, hastape-nak alde batera utziz. Zeren historilaria iragan denaz arduratzen baita, hau da, zentzu batean amaiera-mota bat erdietsi duten mugimenduez eta: *...bere [historilariaren] ikuspegitik ulergarria da Historia amaiera anitz eta hasierarik gabeko kontakizuntzat jotzea* (Arendt 1953: 389). Arendten ustez ordea, Historia hasiera anitz eta amaierarik gabeko kontakizun-multzoa da.

Orain, historilarien metodo eta kategoriak politikara eramaten badira,

lekuz kanpoko suertatzen dira, inongo legeari ez eustea eta berritasunaren bat-bateko agertzea giza askatasunaren adierazgarri direlako hain zuzen. Horregatik dago giza izaera politikoa- rekin bat datorren Historia baten beharra, askatasuna "linboan" kokatzen ez duena.

Orduan, politikaren izateko arrazoia askatasuna denez (*Izan ere, askatasunarengatik bizi dira gizakiak elkarrekin politikoki organizaturik*)⁸ eta jokatzek munduan zerbait berriari ekitea esan nahi duenez, askatasunaren esperientzi-eremua hiritarren artean antolaturiko ekintza da eta jaiokortasuna, ekintzak ontologikoki oinarritzen dituen giza existentziaren baldintza.

Honekin izpiritu-iharduera eta ekintza politikoen arteko harremanetara itzuli gara: gizakiak jaiokortasunaren printzipioari zor dio bere kabuz pentsatzeko eta juzkatzeko duen ahalmena (iraganaz nahiz gaurkoaz, berdin arau finkatu eta ohiturek huts egiten diotenean ere), edozeinek judizio berrien iturburu izateko adina jatorri daukalako bere baitan, judiziook errealitatearen ulermenarekin, baina baita ekintza berriekin ere zerikusia dutela.

Jakintza eta ekimena beraz, ez doaz bakoitza bere aldetik eta gizaki guztiak dira gai ikusle zein egile izateko munduan. Hauxe da Arendten arrazoia alderdi eta iraultzetarako formula ikasiak gaitzetsi eta *Sowjet*-en alde azaltzeko: *Jakintza eta ekintza banatzearekin batera askatasunaren espazioa galtzen da* (Arendt 1986b: 340).

6. Ik. esaterako, Mircea Eliáde, *El mito del eterno retorno*, Alianza, Madril, 1978.

7. Ideia hau batez ere Iraultzari buruzko bere liburuan garatu du Arendtek (Arendt 1986 b).

8. Ik. "What is Freedom?" (Arendt 1961: 146).

Are gehiago, juzkatzeko ahalmenak ez du ezagutza-datuen beharrik, irudimenari (*Einbildungskraft*) lotzen zaiolako, hau da, bestean lekuan jartzeko ahalmenari, amankomuna den munduarekiko ardurari. Giza munduan berdintasun politikoak desberdintasun naturalak babesten dituela ulertzea zentzu-kontua da. Eta Arendtek *sensus communis* delako horri, guztiona den mundurako zentzua (*Weltsinn*) ere deitzen dio.

3. *Munduarekiko erantzunkizuna "bigarren jaiotzaz"*

Norberak jaiotzari erantzun bat emateko bidea dira ekintzak, "bigarren jaiotza" alegia. Zeren eta gizakiak aurretik dagoen mundu batera jaiotzen badira ere, ekintzen bidez bereganatu baitezakete beren izatea munduan. Bigarren jaiotza libre hau dela eta, gizakiak munduarekiko beren erantzunkizunaz jabetzen dira. Baina lana beharra eta naturaren prozesuarekin harremanetan dugun bitartean eta ekoizpena erabilerazko gauza iraunkorrekin, ekintza –gizakia animalietatik bereizten duen ezaugarri nagusia alegia– inongo materiaren bitartekaritzarik gabe burutzen da. Ekintzak galkorrak dira berez eta lekuko premia dute –historilariak nahiz artistak nahiz beste guztiak– hauek narrazioak kontatuz doakien esanahia (*Sinn / meaning*) salba dezaten. Bere jaiotza ekintzekin baieztatzen duenak merezia duelako naturaren zikloa hautsiz lekukoei esker eskuratzen duen hilezkortasuna.

Hau noski ezinezkoa da oroimena gordetzen duen espazio politiko tinko eta publikotasunik (*Öffentlichkeit*) ez baldin badago: alor publikoak giza fenomenoak ezinbesteko duten argitasunaz hornitzen ditu, gizakien ekintzak

denon begietara agertarazi eta gertakizun esanguratsu bilakatuz (espazio horren adibide onena Aro Modernoan iraultza guztietan espontaneoki sortzen diren *Sowjet*-ak dira, Aintzinateko Grezian, *Agora*.) Oker daude bestalde, ekoizpenaren alorretik hartutako ereduari atxikiz, ekintzak arrakastaren arabera neurtzen dituzten filosofoak, Platonekin hasita: ekintzen izaera edo esanahi gogoangarria burutzeko eran datza eta.

Hortaz, zuzenago dugu gizakiak jaiokorrak bezala definitzea hilkorrak baino, hau pentsalari askoren joeraren kontrakoa izanagatik ere. Filosofo eta historilari gehienek ez baitute askatasuna maite, kasualitatezko elementuen beldur direlako antza; aitzitik, aurrikusi nahiko luketen beharraren alde azaldu ohi dira beti.

Ondorioak Historiaren idazketarako

Argi geratu da Arendtek ukatu egiten duela gertatutako guztiaren aurretik determinatu edo beharrezko izatea, nahiz eta –atzera egiterik ez dagoenez– iraganari beharraren itxura eransten zaion. Lehenengoz, etsipenera darama interpretazio horrek; bigarrenez, gauzak beste era batean gertatzeko ahalbidea dago beti, gizakien esku diren neurrian, sarritan iraganeko zerbait gertatu ez balitz bezala imajinatzea zaila den arren, orainaldiaren zati bihurtu denez geroztik. Gertaera bat benetan berritzaletzat jo nahi badugu, giza askatasuna ulertu eta onartu egin behar dugu kausalitatearen kategoria alde batera utzita. Kausalitatezko azalpenak ez baitu gertatutakoa agortzen; hala balitz, gertatutakoak ez liguke ezer berririk ezagutzera emanango. Jacques Monoden unibertsoari

buruzko hitzetan: *Patua betetzearekin batera idazten da, ez lehenago.*⁹ Horrez gain, gertaera historikoei esplikazio borobila bilatu nahi izateak indargetu egiten ditu errealitatearekiko txokea eta erantzuteko kemena. Berriz ere nagusitu da Arendten pentsakeran ekintzaren aldeko ikuspegia.

Aitzitik, gertakizuna da iraganeko bere testuingurua argitzen diguna azaleratzeaz batera: fenomeno handik eratortzea ez zaigu inola ere zilegi. Gertatutakoa jatorri bat da, ez zentzu eboluzionistan, bat-bateko jatorria baizik. Historilarientzat kate kausal baten amaiera dena, iraganean ezarritako hasiera bat baino ez da. Amaierak hastapenak baitira bizirik sigitzen dutenentzat.

Etorkizuna zabalik dugu, jaiokortasunari esker ez delako aurretiko izangaitasun edo potentzialitate aristotelikoaren zertzea. Edo Arendtek Proud honekin bat eginez dioen moduan: *Ustegabekoaren eman-kortasuna aise garaitzen du estatu-gizonen jakinduriak* (Arendt 1987: 11). Aurrikusi ahal den bakarra katastrofea da, bide naturala gainbeheranzko bidea baita, gizakiek mundua bersortuz aurre egiten ez badiote bederen. Eta ekintza hauxe da: *...eguneroko bizitzaren etena (...)* *Historiaren gaia eten hori delarik edo beste hitz batzuekin esateko, ezohikoa dena.*¹⁰ Ekintza da azken finean –nahiz ez gertatu maiz– egunerokoari esanahia eskaintzen diona.

Giltzarririk ez dago Historiaren ibilbideaz jabetzeko: ekintzen ondo-

rioak, bertan gizaki asko eta asko inplikatzeko direnez, infinituak dira. Historiari zentzu orokor bat edo norabide teleologikoa eman nahi zaionean, askatasuna deuseztatzen da gertaera banakoak zapuztuz.¹¹ Gertaera partikular bati doakion esanahikortasun unibertuala paradigma izatetik datorkio, inola ez Historiaren balizko prozesu orokorren zatia izatetik:

(...) Historia politikoa da berez, gertakariak aztergai dituen heinean eta kontakizun bihur daitekeen neurrian ere bai, hau da, Historia ez dute egiten ez ideia, ez tendentzia eta indar sozial orokorrek, baizik eta erabat egiaztagarri diren ekintzek osatzen dute (Arendt 1989: 117).

Tradizioaren haustura

Abiapuntu berriak azpimarratzeaz gain, iraganaren oroimena zaintzearen alde ere azaltzen da Arendt. Baina nolakoa izan daiteke iraganarekiko jarrera, tradizioaren jarraikortasuna behinbetikoz apurtu den totalitarismoaren mendi ilunean? Mende honetako esperientziak eta jaiokortasuna hiatuaren ideiarekin daude erlazionatuta: belaunaldi berriak iragan infinitu eta etorkizun infinitu baten arteko hutsunera jaiotzen diren bezalaxe, gureak ere historikoki inflexio-garaia baitirudi.

Arendten ustez, narrazioak (*Geschichten / stories*) dira giza oroimenaren adierazpenik egokiena. Eta Historian garapen zuzenik ez dagoenez –Historia bat bakarra

9. J. Monod, *El azar y la necesidad*, Tusquets, Bartzelona, 1981, 157 or.

10. Ik. "The Concept of History. History and Nature" (Arendt 1961: 43).

11. Hemen Kanten Historiaren Filosofia bereganatzen du.

ez denez-, *Geschichtenerzähler / storyteller*, kontalari bihurtu zaigu historilaria. Historia, mila puskatan zatitu zaigu mende honetako hilketa masibo eta sistematikoen ondorioz: horregatik egokitu zaio historilariari pentsalari bezala ere jokatzea, pentsamenduaren zatiak (*Denkbruchstücke*) itsasoaren hondoan bildu eta argitara eramanez, orainaldi asetuari bere sasi-bakea lapurtzeko, bai eta injustizien kontrako giza borroken duintasuna gogoraz- teko ere.

Hegelen erarako iraganaren gain- ditzetik ez badago, memoriari eustea dugu bidea gertatu zuzengabekeriak gogoratuz gure garaiaren ezaugarri den absurdutik urruntzeko. Totalitaris- moaren arriskua ez zelako desagertu estalinismo edo Bigarren Mundu- -Gerrako nazismoaren porrotarekin: gaurko demokraziek ere totalitaris- moaren alderdi asko elikatzen dituzte, hauen artean iraganaren ahanztura (alienazio-mota bat zalantzarik gabe) eta jazotakoa juzkatzeko gaitasun eza direlarik. Ahanztura honi alde batetik etengabeko mugimendua eransten zaio, zeinak aldaketak hautemateko behar den iraupen minimoa era- gozten duen; beste aldetik, lanaren mentalitatea inposatu da, masa- -gizarteak alor pribatuaren "pri- bazioan", peitutasunean, murgildurik bizi diren bitartean.

Arendtek askotan aipatzen ditu Faulkner idazlearen hitzok iraganari buruz: *Iragana ez dago hilik, iragan ere ez da egin eta*. Iraganaren datuak

ezinbestekoak dira orainaldia ulertu eta eraldatzeko. Hala ere, Arendten joera iraganarekiko ez da inoiz nostal- giazkoa, baizik eta Paul Ricoeurek ongi adierazi duenez, pentsakera hauskaitza da berea, "erresistentea".¹²

Beraz, jaiokortasunaren kontzeptua eta ausardia etorkizunaren aurrean dira Arendten apostuaren gakoak elementu berriaren alde. Baina zernolakoa den bere itxaropena etorkizunari begira jabetzeko Günther Anders, Arendten lehenengo senarra izan zenaren hitzok zaizkigu lagungarri: *Gaur egun*, dio berak, *itxaropenak koldarkeria besterik ez du esan nahi*.¹³

Hau da, itxaropenaren arriskua pasibitatean datza. Eta etorkizunari buruz ezer gutxi dakigula oharturik, bai eta bizi garen errorik gabeko masa isolatuen gizarte etsiaz, badirudi Arendten arabera dugun itxaropen guztia gure ez-jakiteak osatzen duela. A. García Calvok esan duen bezala: *Ez jakitea da daukagun itxaropen bakarra eta itxaropen honen aurkakoa deritzot gauza guztiak Historiara murriztu nahiar*.¹⁴ Bada, okerra litzateke Historia egin edo produzitu nahi izatea xede-eskema bati jarraituz. Honelaxe amaitzen du Arendtek totalitarismoari buruzko bere idazlana:

Totalitarismoaren aginteak ezin dezake iraunkorra den ezer gauzatu, tiraniak bezala bere hondamenaren hazia bere baitan dakarrelako. Arriskua berriz hauxe da, geure mundua desager daitekeela guk hasiera berri bat sortzen ikusteko

12. Paul Ricoeur, "De la filosofía a lo político. Trayectoria del pensamiento de Hannah Arendt", *Debats*, 37, 1991, 5.

13. Günther Anders, "Hoffnung ist nur ein anderes Wort für Feigheit", *Günther Anders, Interviews und Erklärungen*, Tiamat Berlin, 1987, 35 or.

14. A. García Calvo, *La venta del alma*, Ediciones Libertarias, Madril, 1980, 66 or. Ik. baita ere: *Historia contra Tradición. Tradición contra Historia*, Editorial Lucina, Madril, 1983.

denbora izan ez dugularik (...). Zeren eta amaiera orotan hasiera bat baitago berez, eta hasiera horixe da hain zuzen amaierak agintzen diguna (...). Hasiera hori nonahi dugu, beti sortzeko prest. Eta hasieraren jarraikortasuna ezin da hautsi, gizabanakoaren jaiotzak bermatzen duelako (Arendt 1985).

Herrien mailan honako hau esan

nahi du honek Arendten iritziz, abiapuntu berriak egiteko ahalegin guztiak onuragarriak direla politikoki, batez ere, herri txikien autodeterminazioari dagokionez, hauek bakarrik direlako gai masa-gizarteen despolitizazioari aurre egiteko, politikoki zerbait berria sortzeko munduan hots, askatasun-unerik handiena den fundazioari ekiteko.

Bibliografia

- Arendt, H., (1948): *Sechs Essays*, D. Sternberger, Heidelberg.
- , (1953a): "Understanding and Politics", *Partisan Review*, 20/4, 377-392.
- , (1953b): "Rejoinder to Eric Voegelin's Review of *The Origins of Totalitarianism*", *Review of Politics*, 15.
- , (1961): *Between Past and Future. Six Exercises in Political Thought*, Faber and Faber, Londres.
- , (1971): "Thinking and Moral Considerations", *Social Research*, 38/3.
- , (1985): *Die Ursprünge des Totalitarismus*, Piper, München.
- , (1986a): *Elemente und Ursprünge totaler Herrschaft*, Piper, München.
- , (1986b): *Über die Revolution*, Piper, München [gaztelaniazko itzulpena: *Sobre la revolución*, Alianza, Madrid, 1988].
- , (1987): *Macht and Gewalt*, Piper, München.
- , (1989): *Vita activa*, Piper, München.
- , (1990): "Philosophy and Politics", *Social Research*, 57/1, 73-103.